



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoak 15**

**Vitoria-Gasteiz, 15 de marzo de 2022**

## Eusko Jaurlaritza

# UKRAINAREN INBASIOAREN ONDORIO EKONOMIKOAK

## Neurri ekonomikoak

Gobernu Kontseiluak Ukrainako krisia Euskadiko enpresa-sarean izaten ari den inpaktuaren egoera berrikusi du. Jakin badakigu, igandean Presidenteentzako Biltzarrean adostutakoaren ildotik, energiaren prezioa desakoplatzearekin eta estatu mailan aktibatu daitezkeen neurriekin lotutako Europako erabakien zain egoteaz gain, beharrezkoa izango dela Euskadin ere hain ezohiko den egoera honetarako geure tresnetan oinarritzea.

Ildo horretan, Gobernu Kontseiluak finantzaketa-tresna berriak aktibatzea erabaki du. Tresna horiek Finantzen Euskal Institutuak definituko ditu, eta datorren astean jakinaraziko dira, merkatu horietan jarduten duten edo gatazka belikoaren ondorioek eragiten dieten enpresei laguntzeko.

Goiz da zenbatekoak eta artikulazioari buruzko xehetasunak emateko, baina espero dugu hurrengo Gobernu Kontseiluan tresna berri horiek eskura izatea. Gaur egun, laguntza-lerro hauek daude, bizi dugun egoera arintzeko irtenbideak eskaini ditzaketena:

### **150 milioi, energiaren kudeaketa hobetzeko diru-laguntzetan**

Enpresen lehiakortasuna energia-kostuei lotutako alderdietan ahultzen ari dela kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak dei egiten dio euskal enpresari Energiaren Euskal Erakundeak bultzatutako eta aurrezteari, eraginkortasunari eta mendeko iturrietatik bereizitako energiak sortzeari eta kudeatzeari laguntzen dieten programetan parte har dezan.

150 milioi euro diru-laguntza moduko laguntza-programetan, berehalako irtenbiderik sortzen ez dutenak, baina epe ertainean enpresen etorkizunari begira laguntza handiko irtenbideak eskaini ditzaketen energia-sistemak ezartzen laguntzen dutenak.

Zertaz ari gara?

- Industria-sektoreko energia-eraginkortasunerako laguntzak 61M €
- Ibilgailu alternatiboen MOVES plana 16 M €
- Autokontsumorako eta energia berriztagarrien iturriekin biltegitratzeko laguntzak, eta sistema termiko berriztagarriak ezartzea egoitzetan 54M €
- [Fatxadak birgaitzeko PREE plana](#) 1,5 M €
- Garraio-flotak eraldatzea 6,4 M € (gaur bertan argitaratuko da EHAAn).
- Energia berriztagarri termikoak 7,7 M €
- Itsas energiak 2,5 M €

Programa horietarako, Eusko Jaurlaritzak zuzkidura handituko luke, beharrezkoa den heinean.

Nolanahi ere, inpaktua oraindik ezin da zehatz-mehatz neurtu, eta Gobernu Kontseiluak konpromisoa hartu du sektore-jarraipena puntualki egiteko, kasu bakoitzean eska daitezkeen neurriei ekin ahal izateko.

### **LEHEN SEKTOREA eta LOGISTIKAREN EREMUA**

Aste honetan, Arantxa Tapia sailburuak bi bilera egingo ditu, bihar, asteazkena, lehen sektoreko ordezkariekin, eta ostegunean, garraiolarien greba mugagabeen sartuta dauden logistikaren arloko arduradunekin.

### **ASTERO EGUNERATZEN DEN INDUSTRIA-TXOSTENA**

Hori guztia bat dator Ekonomiaren Garapen Siletik eta Basque Trade and Investment-etik (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) duela bi aste hasitako lanarekin; izan ere, horiek kluster industrialekin duten komunikazio/harreman iraunkor batean jarraipen-txosten bat egiten dute, hori etengabe eguneratzen ari da eta krisiak Euskadin duen eragina neurtzen du.

Afekzioak lotuta daude, batez ere, energiaren kostuari, hornidura-kateei eta lehengai jakin batzuen faltari.

## Lehendakaritza

### EUSKO JAURLARITZAK AURTENGO ARAU-PLANA ARGITARATZEA ONARTU DU

- **Plana Irekia gardentasun-atarian argitaratuko da, herritarren informazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea bermatzeko**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du 2022rako aurreikusitako Urteko Araugintza Plana argitaratzea. Planak jasotzen ditu aurten Jaurlaritzako sail bakoitzak Gobernu Kontseiluan onartzeko aurkeztuko dituen arau-ekimenak (Lege-aurreproiektuak eta Dekretuak).

Plana **Irekia** gardentasun-atarian argitaratuko da, herritarren beharrezko informazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea bermatzeko.

### 2022ko URTEKO ARAUGINTZA PLANA

#### 1. LEHENDAKARITZA

- Dekretu-proiektua, 12/2019 Dekretua, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzekoa aldatzen duena.
- 23/2022 Dekretua, otsailaren 15koa, 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza-bekak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Zeharkako Lankidetzeta Proiektu Traktoreak diseinatzeko laguntzak arautzen dituena, Euskadi 2030 ZTBPrez zeharkako ekimen traktoreen esparruan jasotako eremuetan.

#### 2. SEGURTASUN SAILA

- Lege-aurreproiektua, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak arautzen dituena.
- Lege-aurreproiektua, datu pertsonalak babesteko.
- 19/2022 Dekretua, otsailaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen dekretua.
- Dekretu-proiektua, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Ertzaintzaren fakultatibo eta teknikoen eskala arautzeari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Poliziaren espezialitateak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia aldatzeko/onartzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Ertzaintzako kondekorazioen eta ohorezko sarien erregimena aldatzen/onartzen duena.

#### 3. LAN ETA ENPLEGU SAILA

- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege-aurreproiektua.. Euskal Enplegu Sistemaren Lege-aurreproiektua
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua.

- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, kooperatiben arloko zehapen-prozedura arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, prebentzio zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta enplegu-agentzien artean enplegu-zerbitzua emateko hitzartutako ekintza arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzeko, enpresa horietan sartzeko prozedura ezartzeko eta enpresa horiek erregistratzeko arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzeko Dekretua bigarrenez aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.

#### 4. GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNU SAILA

- Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzeari buruzko Lege-aurreproiektua
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundearen Erregistroa arautzeko dekretu-proiektua.
- Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua
- Dekretu-proiektua, herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzekoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidego berezietako eskalen funtzioak ezarri eta espezialitateak arautzeko dena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, euskal sektore publikoko enplegatu publikoentzako telelanari buruzko akordioa onartzeko dena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.

#### 5. EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

- Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Lege-aurreproiektua
- 14/2022 Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren estatutuak onartzeko dekretua eta indargabetzen baitira Elkartek eta Hazitek programak arautzen dituzten aginduak.
- Dekretu-proiektua, segurtasun industrialaren arloko profesionalen kualifikazioari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, energiaren informazioa eta gardentasunari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko energia berriztagarrien lurralde-plan sektoriala onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, energia eolikotik energia elektrikoa sortzeko instalazioen baimena arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, nekazaritzatik eratorritako nitratoek urak kutsatzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudia eguneratu eta bateratzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan urpeko jarduerak eta urpekaritzako lanbide-jarduera baimendu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzen dituena.

- Dekretu-proiektua, arrantza ikuskaritzarena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Genetikoki Eraldatutako Organismoak kontrolatzeko Biosegurtasunaren Euskal Batzordea sortzen duena, genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzeko eta nahita askatzeko baimenak komunikatzeko eta eskatzeko prozedura arautzen duena eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Baimen eta Komunikazioen Erregistroa sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan abereen ongizaterako eta abeltzaintzako ustategien eta instalazioen antolamendu zooteknikorako baldintza higieniko sanitarioak arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, sasoikako langileentzako ostatuen baldintzak ezartzeko eta ostatuen erregistroa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, 81/2015 Dekretua, ekainaren 2koa, Euskal Herriko abere-arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko eta animalia-arrazak sustatzen dituzten entitateak arautzeko aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, 2021-2027 aldirako Euskadiko Landa Garapeneko Programan aurreikusitako laguntzen esparru-araudia ezartzen duena.
- Dekretu-proiektua, etxeko hondakin batorizazio energetikoaren ondoriozko zepak batorizatzeko jardueri aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duena.
- Dekretu-proiektua, hondakinak hondakindegietan iltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Izki Naturagune Babestuaren, Parke Naturalaren, Kontserbazio Bereziko Eremuaren eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren natura-baliabideak antolatzeko bigarren plana onartzen duena eta Izki Parke Naturalaren eta haren babes-zona periferikoaren mugak aldatzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Natura 2000 sareko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua, Kontserbazio Bereziko Eremua eta Parke Naturala (Valderejo) den Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako bigarren Plana onesten duena.
- Dekretu-proiektua, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Egitamua aldatzeko dena.
- Dekretua eta Agindua aldatzea, Eraikuntza- eta eraipen-hondakinei eta lurra berrerabiltzeko eta batorizatzeko irizpideei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, EAEn iraunkortasunerako hezkuntza sustatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Hiri Erabilera Uraren Ziklo Integralaren Esparru Erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.

## 6. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

- Finantzen Euskal Institutuaren Lege-aurreproiektua.
- Diru-laguntzen araubidea arautzen duen Lege-aurreproiektua.
- 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren Lege-aurreproiektua.
- Dekretu proiektua, Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu proiektua, EAEko aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardura antolatu eta gainbegiratzeko.
- 21/2022 Dekretua, otsailaren 8koa, 2022ko ekitaldirako zorpetze-eragiketak egitea erabaki eta baimentzen duena.
- Dekretu proiektua, 2022ko urteko estatistika-programa onartzeko dena.
- Dekretu proiektua, EAEko higiezin kredituko bitartekarien eta higiezin mailegu-emaielen baimena eta erregistroa eta horiek gainbegiratzeko eta zehatzeko eginkizunak arautzeko dena.
- Dekretu-proiektua, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan zenbait dekretu aldatzeko dena.

## 7. HEZKUNTZA SAILA

- Euskadiko Hezkuntza Lege-aurreproiektua.
- Lege-aurreproiektua, "José Uruñuela" Dantza Kontserbatorioa ikastetxe publikoetan integratzeko hitzarmena sinatzeko baimena ematen duena, eta Kontserbatorio publiko berria sortzeko dekretu-proiektua.
- Dekretu proiektua, unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) sorkuntza arautzen duen dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Urrutiko Prestakuntzako Euskal Institutuaren antolamendu, funtzionamendu eta autonomia ezartzen duen ekainaren 19ko 93/2018 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, 1/2018 Dekretua, urtarrilaren 9koa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan), baita oinarrizko lanbide heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere, aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, otsailaren 3ko 21/2009 Dekretua aldatzeko dena (21/2009 Dekretua, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-zentroyen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituena).
- Dekretu-proiektua Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- Dekretu-proiektua Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- Dekretu-proiektua Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- Dekretu-proiektua, 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, aldatzeko dena (289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartearen "Musika-Eskola" irelako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena).
- Dekretu-proiektua, Ikastetxe ez unibertsitarioren zuzendaritza taldeak hautatzeko prozedura arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, hezkuntza-sistemari laguntzeko oinarrizko egiturak eguneratzen dituena, horien antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituena eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde-zentroyen lanpostuen zerrenda arautzen duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleek hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan aniztasunari eman beharreko erantzunari buruzko Dekretu- proiektua.
- Dekretu-proiektua, ikusteko desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioko baliabide-zentroyen lanpostuen zerrenda arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Ingurune estrategikoen bultzatze eta garatzea "TKGUNE" Programaren erregulazioaren bitartez.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren eranskina aldatzen duena, lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzarako bide ezformalen bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura eta antolamendua ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan, prozeduran parte hartzeagatik aholkulariei, ebaluatzaileei eta ebaluazio-batzordeei eman beharreko konpentsazio ekonomikoak ezartzen dituena.
- Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, 46/2014 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituena, aldatzeko.
- Dekretu-proiektua, Etorbizuneko Ikasketen Euskal Institutua sortzen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.

- Dekretu-proiektua, Talentuaren Euskal Institutua sortzen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Ikaskuntza Birtualen eta Digitalizatuen Lanbide Heziketako Zentro Integratua sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, lanbide-heziketako eredu konbinatuan espezializatutako
- Berrikuntza Aurreratuaren Kudeaketan Espezializatzeko Programak arautzen dituen Dekretu-proiektua.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuak aldatzeko Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ematen dituen titulazio ofizialak lortzeko unibertsitate-ikasketen esperimantalitasun-mailak zehazten dituena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Itunpeko Ikastetxe Pribatuetaiko Hezkuntza-Itunen Araubidea eta Ordainketa Eskuordetuaren Sistema Arautzen dituen Dekretu berria.
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailak finantzatutako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak ez diren ikastetxe publikoetako ikasleen eskola garraioa arautzen duen dekretua aldatzea.

## 8. LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

- Kable bidezko garraioaren Lege-proiektua (GKE 2022/02/08)
- Euskadiko mugikortasun jasangarriaren Lege-aurreproiektua.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-landideztakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa.
- Dekretu-proiektua, Hirigintza estandarrak arautzen dituena.

## 9. OSASUN SAILA

- Euskadiko Osasun Publikoaren Lege-aurreproiektua.
- Osasun Saileko Aholku Kontseiluen araubideari buruzko maiatzaren 24ko 121/2015 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dekretu-proiektua.
- Kontsumo publikoko edateko uren fluorazioari buruzko martxoaren 1eko 49/1988 Dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektua.
- 1/2016 Legea ez betetzeagatik ezarritako zehapenak ordeztzeko sistema arautzen duen dekretu-proiektua.
- Kontsumoko Uren uztailaren 16ko 178/2002 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dekretu-proiektua.
- Erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-araudia onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dekretu-proiektua.
- 17/2022 Dekretua, otsailaren 1ekoa, Profesional Sanitarioen Euskal Erregistroarena.
- Osasun-publizitatea arautzen duen urriaren 15eko 550/1991 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua.
- Adikzioei buruzko informazio-sistema sortzen duen dekretu-proiektua.
- Eutanasiaren Erregistro Ofizialari buruzko dekretu-proiektua.
- Sortzetiko Anomalien Erregistroari buruzko dekretu-proiektua.
- 34/2012 Dekretua, martxoaren 6koa, EAEko osasun-prestakuntza espezializatuko sistema antolatzen duena aldatzen duen dekretu-proiektua.
- Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren dekretu-proiektua.
- Osasun Saileko osasun-zerbitzuak ituntzeko oinarriak ezartzen dituen apirilaren 8ko 77/1997 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dekretu-proiektua.
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) osasun-zerbitzuez hornitzeko dekretu-proiektua.
- Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dekretu-proiektua.



- Azaroaren 28ko 500/1995 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua, botikinak baimentzeko prozedura eta haien funtzionamendu-araubidearen baldintzak ezartzen dituena.

## 10. BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

- Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko Lege-aurreproiektua.
- Garapenerako Lankidetzaren Lege-aurreproiektua.
- Dekretu-proiektua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, haur eta gazteen aisialdiko hezitzaileak trebatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi jardueretako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duen Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen uztailaren 1eko 124/2008 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua: espetxe-arloko lanaren eta ikerketaren "Francisco Javier Gomez Elosegui" saria sortu eta arautzeari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundearen Errolda sortu eta haren funtzionamendua arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen parte-hartzea arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Arreta Pertsonalizatuko Planari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, adinekoentzako ostatu-zerbitzuei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, etxeko indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako informazioa eta arreta emateko zerbitzuarena.
- Dekretu-proiektua, Bonu termikoari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua berrikusten duena.
- Dekretu-proiektua, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, familia-bitartekaritzako zerbitzu integralari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa sortzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituena.
- Genero-arloko aukera-berdintasunaren arloko zenbait dekretu aldatzen dituen dekretua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailaren egitura organikoa eta funtzionala berrira egokitzeko.

## 11. KULTURA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KIROLA SAILA

- 6/2022 Dekretua, urtarrilaren 11koa, Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari buruzkoa.
- Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen EAEko Erregistroa sortzeko Dekretu-proiektua.
- Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko, azaroaren 9ko, 297/2010 Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretu-proiektua.
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen duen, urriaren 16ko, 222/2012 Dekretua aldatzen duen Dekretu-proiektua.

- Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko Dekretu-proiektua.
- EAEko kultura ondasun immaterialaren inbentarioa egiteko prozesua, haren egitura eta irispidea ezartzen duen Dekretu-proiektua.
- Erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapena ebaluatu eta aitortzeko sistema arautzen duen Dekretu-proiektua.

## **12. TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA**

- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren Lege-aurreproiektua.
- Dekretu-proiektua, 2012ko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretua, bidaia-agentziei buruzkoa, bigarrenenez aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal kultura ondareko elementu katalogatuen barneko turismo-gidariaren jarduna gaitzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Hotel-establezimenduei buruzkoa.
- Turismo aktiboa arautzen duen dekretu-proiektua.
- Bigarren eskuko ibilgailuen salerosketan kontsumitzaileen informazio-eskubidea arautzen duen Dekretu-proiektua.
- Balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratzen ez duten irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuetako erabiltzaileen informaziorako eta interes ekonomikoen babeserako eskubidea arautzen duen Dekretu-proiektua.

## Segurtasuna

### ERTZAINZAK ERRIOXAKO NAZIOARTEKO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN FORMAKUNTZAN LAGUNDUKO DU

- **UNIREk eta Segurtasun Sailak ikasleen formakuntza praktikorako egindako hezkuntzako lankidetzak hitzarmen bat da**

Eusko Jaurlaritzak hezkuntzako lankidetzak hitzarmen bat sinatuko du Errioxako Nazioarteko Unibertsitatearekin, Segurtasun Sailaren bidez, ikasleen formakuntza praktikoa hobetzeko eta, modu horretara, ikasleen gaitasun profesionala areagotzeko. Hitzarmenak UNIREko ikasleek Ertzaintzan egingo dituzten kanpoko praktika akademikoaren esparru arautzailea ezartzen du.

Segurtasun Saila aspaldiko urtetan ari da Euskadiko nahiz Estatuko beste lurralde batzuetako unibertsitate ezberdinekin lankidetzan. Horrela, 2016an antzeko hitzarmen bat sinatu zuen UNIREkin berarekin, Kriminologia Graduko ikasleek kanpoko praktika akademikoak Ertzaintzan egin zitzaizkien bi aldean onurarako. Horregatik, bi erakundeek ikusi dute komenigarria dela lankidetzak akademikorako beste hitzarmen bat sinatzea unibertsitateko diziplina ezberdinetako ikasleek modu praktikoan gara dezaten Unibertsitatean ikasitakoa eta, era horretara, lantokietako inguruabar errealetara molda dezaten.

Hitzarmenak 4 urteko indarraldia izango du, eta beste lau urtez luzatu ahal izango da.

## Segurtasuna

### ALDERDI POLITIKOEN FUNTZIONAMENDU ARRUNTERAKO 2022KO DIRULAGUNTZA ONARTU DA

- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan 4.536.000 euroko kontu-saila izendatu da 2022rako

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoei emango zaien dirulaguntzaren banaketa. Dirulaguntzaren helburua 2022rako funtzionamendu arrunterako gastuei erantzutea da.

Banaketa kalkulatu da Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetako emaitzak, hau da, botoak eta eserlekuak, Euskadiko Hauteskunde Batzordeak EHAA argitaratuak, kontuan hartuta.

ALDERDI POLITIKOA	BOTOAK GUZTIRA EAEn (*)	ESERLEKUAK
EAJ-PNV	349.960	31
EH Bildu	249.580	21
PSE-EE (PSOE)	122.248	10
Elkarrekin Podemos-IU	72.113	6
PP+Cs	60.650	6
VOX	17.569	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>872.120</b>	<b>75</b>

(\*) Dirulaguntza-eskubidea ematen duten botoak guztira Euskal Autonomia Erkidegoan.

ALDERDI POLITIKOA	DIRULAGUNTZA GUZTIRA
EAJ-PNV	1.838.415,76 €
EH Bildu	1.288.756,87 €
PSE-EE (PSOE)	625.484,27 €
Elkarrekin Podemos-IU	371.005,54 €
PP+Cs	331.258,58 €
VOX	81.078,98 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.536.000,00 €</b>



## Lana eta Enplegua

### **LANBIDEK 2,2 MILIOI EUROREKIN FINANTZATU DU FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO ORDEZKAPENAK EGITEKO KONTRATAZIOA**

Gobernu Kontseiluak onartu du Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 2,2 milioi euro bideratzea 2022an lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak finantzatzeko, eta horiekin 1.500 pertsona inguru kontratatzea aurreikusten da.

Laguntza horien bidez, seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordeztu nahi dira. Diruz lagunduko da bai langabe gisa izena emanda dauden pertsonak kontratatzea, bai lanaldi partzialerako kontratatutako langileen lanaldia luzatzea.

2021eko deialdian 853 kontratuk jaso zuten dirulaguntza; horietatik 674 emakumeak izan ziren eta 179 gizonak. 253 enpresak jaso zituzten laguntza horiek, eta guztira 1,14 milioi euro izan ziren. Diruz lagundutako kontratu guztietatik 195 eszedentzien ordezkapenekoak izan ziren, eta 658 lanaldi-murrizketakoak. Gehienetan (838) seme-alabak zaintzeko izan zen.

### **LANBIDEK 500.00 EURO ERABILIKO DITU ORDAINKETA BAKARREKO PRESTAZIOA JASOTZEN DUTENENTZAKO GIZARTE SEGURANTZAKO KUOTAK FINANTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak Lanbideko Administrazio Kontseiluaren erabaki bat berretsi du; horren bidez, 500.000 euro esleitu dira 2022an langabezia-prestazioa ordainketa bakarrean jasotzen duten pertsonen Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntzak finantzatzeko.

2021eko deialdian, lan elkartuko kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide langile gisa sartu ziren, edo langile autonomo gisa eratu ziren 538 langaberen kuotak diruz lagundu ziren, 161.500 euroko aurrekontua gauzatu.

### **LANBIDEK SINTELEKO LANGILEENTZAKO LAGUNTZA BEREZIEKIKO KONPROMISOARI EUTSIKO DIO**

Jaurlaritzaren Kontseiluak ontzat eman du Lanbidek laguntza bereziak ematea 76/2000 eta 25/2001 (SINTEL) enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileei. Deialdiaren zenbatekoa 28.800 eurokoa da.

## Lana eta Enplegua

### **ENPLEGUA ZAZPI PERTSONAREKIN INDARTU DA GIZARATERATZEKO IBILBIDEAK GARATZEKO, MINISTERIOAREKIN EGINDAKO AKORDIO BATI ESKER**

Gobernu Kontseiluak gizarteratzeko proiektu pilotuak kudeatzeko aldi baterako programa bat sortzea onartu du gaur, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta enpleguko eta prestakuntzako zazpi teknikari kontratatzea aurreikusten du.

Lan eta Enplegu Sailaren eta Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren arteko hitzarmen baten bidez, xede horretarako Europako funtsetako 6,5 milioi bideratuko dira, eta proiektu pilotu berritzaileak egingo dira iraupen luzeko langabeziak eragin handia duen euskal udalerrri eta eskualdeetan GSla eta/edo DSBE jasotzen duten pertsonen gizarteratze-ibilbideak garatzeko.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### EUSKO JAURLARITZAK GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILAREN 2022KO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

- **Plan onura publikoko edo interes sozialeko jardueretarako laguntzak aurreikusten ditu**
- **Diru-laguntzak aurreikusten ditu banda zabaleko sareak sustatzeko, adimen artifiziala sustatzeko, jarduera sindikalari finantza-laguntza emateko edota Open Data Euskadi webgunea zabaltzeko**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak 2022an deialdi bidez eman behar dituen diru-laguntzen aurreikuspena, bai eta Sailak eman behar dituen laguntza zuzenak eta izendunak eta sariak ere. Diru-laguntzen plan estrategikoa bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzera zuzenduta dago. Era berean, informazio publikorako sarbidea ahalbidetu nahi du gardentasunaren eta gobernu onaren praktiken ikuspegitik.

Planak honako hauek biltzen ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza den aldetik Gasteizko hiri sustatzea; udal erakundeetan toki autonomia garatzea; euskal fundazioen lege-betebeharrak betetzea erraztea; Open Data Euskadi webgunea ezagutaraztea; herritarren ekimenak sortutako balio publikoa aitortzea; Euskal Zuzenbide Zibilari eta Autonomikoari buruzko zabalkunde publikoa egitea; edo jarduera sindikalari finantza laguntza ematea.

Era berean, maila teknologikoago batean, Euskadiko herriguneetan banda zabaleko sareak sustatzeko, adimen artifiziala sustatzeko eta garatzeko, eten digitala desagerrarazteko eta eraikinetan dauden telekomunikazio azpiegiturak ezartzeko aukera ematen duen ekipamendua hobetzeko laguntzak aurreikusten ditu, betiere sareen hedapena optimizatu eta energia kontsumo txikiagoa lortzeko.

Diru-laguntzen zenbatekoa 15.845.524 eurokoa izango da urte honetarako, eta gaika honela banatuko dira:

Vitoria-Gasteizko kanona	10.000.000€
Eudel-Toki-autonomiaren garapena	100.000€
Funko: Euskal fundazioen lege-betebeharrak betetzea	15.000€
Open Data Euskadi sariak	26.000€
Elkarlan sariak	36.000€
Euskal Zuzenbide Zibilaren Akademia	8.000€
Banda zabaleko sareen deialdiak	992.524€
Adimen artifiziala sustatzea eta garatzea	90.000€
Jarduera sindikalerako laguntzak	432.000€
Kolektibo ahulentzako bonu digitalen deialdia	456.000€
Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak hobetzea	3.690.000€



## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK 500.000 EURO BIDERATUKO DITU ITSASERTZEKO EREMUAK SUSTATU ETA GARATZERA

- Laguntzak oinarrizko zerbitzuak txertatzera eta itsasertzeko ondarea kontserbatzera bideratuko dira
- Azken lau urteetan bi milioi euro inguru bideratu dira xede horretara, eta, diru horri esker, 4,6 milioi inguruko inbertsioak egin dira

Eusko Jaurlaritzako Batzordeak oniritzia eman dio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantza Tapiaren Aginduari. Horren bidez, 500.000 euro bideratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatu eta garatzeko laguntzetara (ITSASPEN programa) 2022. urtean.

Agindu horrek bi laguntza-ildo arautzen ditu:

- Itsasertzeko ondarearen kontserbazioa eta hobekuntza.

Hartzaileak: Administrazio publikoek gain, zuzenean edo beren erakunde autonomoen eta fundazioen bidez, kasu honetan, honako hauek ere izan daitezke onuradunak: irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak, pertsona fisikoen edo juridikoen elkarteak (publikoak edo pribatuak) eta izaera juridikorik ez duten baina diruz lagundu ahal diren jarduketak egin ditzaketen ondasun-erkidegoak.

- Itsasertzeko ekonomiarako eta herritarrentzako oinarrizko zerbitzuen ezarpena.

Hartzaileak: udalerriak, zuzenean edo beren erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, sozietate publikoen, fundazio publikoen, nortasun juridikoko udal-partzuergoen, mankomunitateen eta eskualdeen bidez.

### Aurreko deialdiei buruzko datuak

Laguntza hauen aurreko lau deialdietan guztira 38 proiektu izan dira onuradun, eta 1,8 milioi euro baino gehiago jaso dituzte, guztira 4,6 milioiko inbertsioak egiteko.

2018an, hamaika proiektu onetsi ziren, eta ia bi milioi euroko inbertsioa egin zen. Proiektu horietarako, 573.000 euroko Itsapen laguntza jaso zen.

2019an, zazpi proiektu onetsi ziren, eta 482.300 euro jaso zituzten 800.000 eurotik gorako inbertsioetarako. 2020an, halaber, zazpi eskaerak jaso zuten

oniritzia eta 430.000 euroko kopuru globala, eta 990.000 euro bideratu ziren proposatutako gastuetarako.

2021ari dagokionez, hamahiru eskaera onetsi ziren, 900.000 euroko inbertsioa egin zen eta 373.000 euroko laguntzak bideratu ziren gastu horietarako.

### **Eskaerak eta epea**

Laguntza-eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politikako zuzendariari helaraziko zaizkio. Eskaera izapidetzeko zehaztasunak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainontzeko dokumentazioa <https://www.euskadi.eus/servicios/0113708> helbidean daude eskuragarri. Eskaera egin osteko izapideak <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/> helbidean egingo dira elektronikoki.

Epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

## Ekonomia eta Ogasuna

### **INEREN ETA EUSTATEN ARTEKO HITZARMENA, EAEN ETXERIK GABEKO PERTSONEI BURUZKO 2022KO INKESTA EGITEKO**

Astearte honetako Gobernu Kontseiluak, bere baimenarekin, Espainiako Estatistika Erakundearen (INE) eta Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) arteko hitzarmena gauzatu du, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) etxerik gabeko pertsonei buruzko 2022ko inkesta egiteko.

Bai Estatuak bai Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte-bazterketako prozesuak eta etxerik gabeko pertsonen ezaugarriak hobeto ezagutzeko interesa dute eta horrek zehazten du kolektibo horrek EAEn egiten duen ikerketan jarduera publikoa koordinatzea komeni dela.

2021-2024 Estatistika Plan Nazionalean jasota dago interes hori, "Etxerik Gabeko Pertsonei buruzko 2022ko Inkesta" estatistika-eragiketaren bidez. Eustatek helburu hori bera du 2019-2022 Euskal Estatistika Planean.

Hori oinarri hartuta, hitzarmen honen bidez ikerketa bakarra egin nahi da EAEn, estatistika-planetan aurreikusitako helburuak betetzeko beharrezkoa den informazioa lortuz, estatistika-eragiketan bikoiztasunak saihesteko, eta horrek, era berean, baliabide publikoak aurreztea ekarriko du.

Inkesta etxerik gabeko pertsonei ostatua eta/edo ostalaritza zerbitzuak eskaintzen dizkieten zentroen sareko erabiltzaileei zuzenduta dago, doan edo kopuru txiki bat ordainduta edo lanen bat egitearen truke, eta kolektibo horren profil soziodemografikoa, bizi-baldintzak eta ostatua eskuratzeko zailtasunak ezagutzea du helburu.

## Ekonomia eta Ogasuna

### **EUSTATEN, GIZARTE SEGURANTZAKO INSTITUTUAREN ETA ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUAREN ARTEKO HITZARMENA, ESTADISTIKA-HELBURUETARAKO INFORMAZIOA TRUKATZEKO**

